

## Usaimena hiltzaile



### **Perfumea. Hiltzaile baten historia**

Jatorrizko izenburua: *Das Parfum. Die Geschichte eines Mörders*

Egilea: Patrick Süskind

Itzultzailea: Miren Arratibel

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania

### KARLOS DEL OLMO

Ez da oso ohikoa euskaraturiko literatura modernoan egile baten antzezlanaren eleberri ospetsu bat baino arinago itzuli izana, baina halaxe jazo da, hain zuzen ere, Süskinden *Kontrabaxua* eta *Perfumea* lanekin: lehena Jose Ramon Egiluzek euskaratu eta 1988an Maskarada taldeak estreinatu zuen (bide batez, seguru asko euskaraz gehien antzeztu den lan itzulia izateraino heldu ere zen). Bigarrena, ordea, Miren Arratibel itzultzaile ezagun eta saiatuak ekarri du gurera, eta itxaroa ez da alferrikako gertatu.

Dagoeneko halako ezagun den idazlan baten gainean zer edo zer berririk esaten ahalegintzea neketsu ere neketsu da. Nork ez du eleberriaren edo haren egokitzapen zinematografikoaren aditurik izan? XVIII. mendeko Paris gainpopulatu eta ezin sinesterrainoko zikinean, Heriori atzaparretatik ihes egin zion bizigura handiko ume bat jaio zen mundura, arrain azokako kiratsen artean lehen arnasa hartu eta handik urte batzuetara, zirkulua ixteko, heriotza modu ia seguru batetik era harrigarrian alde eginda, ia jaiolekuan bertan hil zen jaiotzakoaren antzeko suntsipen zeremonia, akelarre batean. Jendea lurrinen bitartez alagala erabiltzeko boterea eskuratu arren, bestean maitasuna benetan eta berez bereganatzeko biderik ez zuela egiaztatu zuen, baita harengan halako sentipenak errorik zabaltzen ez zuela ikasi ere.

Kontakizuna bestela ere araka daiteke, jakina, gizarte bazterkeria baten, beste gizakumeen artean egoteko ezintasun handi baten kronika desesperatu gisara: zikinkeria, kiratsaren, gaixotasunen garaian, gizartean ezberdina izatea usainik (ez onik, ez txarrik) ez edukitzea da. Beraz, kontraheroi baztertuaren ohiko istorio ohiz kanpoko gendake honako hau, trebetasun handiz kontatua eta ezin trebeago itzulia, gailurrera heltzeaz batera, erabateko desagerpena eta suntsidurara daroan maldan behera geldiezin batean abailtzen den soziopata baten amaiera iragarri baten kontraera tragikoa. Bestelatsu ere irakur daiteke liburua, hau da, hizkuntza auziaren ikuspegitik: protagonistak ez darabil inguruko gainerako herrikideen hizkuntza bera; ahozko hizkera, are idatzizkoa ere arrotz eta neketsu zaio. Bera, ondoen, usaimenez komunikatzen da. Ezin hobeto ulertzen ditu usainen mintzoak, baina horrek inkomunikazioa besterik ez dio sortzen, ez duelako haren pareko solaskiderik inon topatuko.

1985ean ikusi zuen jatorrizko lanak argia. Hainbat hizkuntzataraz itzulia, Patrick Süskinden literatur arrakasta ia bakarra izan da (Euskal Herrian haren beste bi lan antzerkirako moldatu badituzte ere), zeren idazlearen beste lanok, ondo samar saldu arren, inoiz ez duten lortu *Perfumearen* pareko sonarik. Aspaldi honetan ez legetxe, *Perfumearen* arrakasta handia ez zen izan argialetxeen merkatu maniobra baten ondorio, idazlearen narrazio estiloaren eta dokumentazio lanaren ondorio baizik, garai hartako irakurleei harrimena bezainbeste piztu baitzien usain goxoenganako kezka.

Grenouille, protagonista, ikur hutsa da, jakina. Zerena? Mugarik eta moralik gabeko izaki handiguratsu batena, zertan esanik ez. Jaiotzetiko akats batek —usain propiorik ez izateak— kontzientzia sozialik ez izatera darama: errealitatea berberak eraiki beharko du, sudur bidez. Bizitzan, artista handien antzera, helburu bakarra izango du: perfume akasgabea, bikainena, ederrena sortzea. Nahiz eta asmo sasiko horrek neskatzaren edertasuna eta purutasuna akabatzea eta zikintzea ondorio ekarri. Literaturak hain kutun izan dituen munstro horietako bat da Jean-Baptiste Grenouille, jainkotasunaren, besteen miresmen eskuraezinaren bila diharduen gizagaixo bat. Munstroak, azken hatsa ematerakoan, aingeru modura ikusi zuten hainbat kanibal zarpail eta bazterturen jangai eta bizigai bihurtu besterik ez zuen izan. Ikurra da, bestalde, ia inortxok onartzen edo ulertzen ez duen artistarena ere.

Itzulpenaz zer esan daiteke? Pasarte benetan gogoangarriak dituela hasierako pasarteetan, Paris populatu eta zikin haren gaineko kiratsen deskribapena egiterakoan, antzeratsu irakur dezakeela denbora pasa hutsezko asmoz irakurtzen duenak —eta gauza handia da hori— zein liburuari darion filosofiaren barruan usna egin gura duenak —hartarako aukera ere ematen duenez gero—. Hala, batzuek zein besteek, eta guk geuk ere, Jean-Baptiste atalka-atalka ñañañ egin zuten kanibalen antzera, irribarre egin dezakegu, ezin harroago, estreinako aldiz, liburua leituta, azkenean, zer edo zer maitasun hutsagatik egin dugulako.